

Koroaren arauketa juridikoa Espainiako 1978ko Konstituzioan

SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ

Konstituzio Zuzenbideko irakaslea

Deustuko Unibertsitatea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 16/04/2018

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 12/11/2018

Laburpena: Artikuluak Monarkiak Espainiako 1978ko Konstituzioan duen araubide juridikoa deskribatzen du eta Koroaren arauketa juridikoari buruzko gai eztabaidagarri batzuk aztertzen ditu ere, hala nola, parlamentu-monarkia Estatutaren eredu politiko gisa, Erregearen eginkizunen benetako norainokoak, (haren eginkizun “arbitralak” eta Indar Armatuen gorengo agintearekin loturikoak barne), Erregearen estatutu juridikoa eta Koroaren oinordetza.

Gako-hitzak: Koroa. Parlamentu-monarkia. Erregearen estatutu juridikoa eta eginkizunak. Koroaren oinordetza.

Resumen: El artículo describe el régimen jurídico de la Monarquía en la Constitución española de 1978 y analiza asimismo algunas cuestiones controvertidas relativas a la configuración jurídica de la Corona como, por ejemplo, las relativas a la Monarquía parlamentaria como forma política del Estado, el alcance de las funciones del Rey (incluidas sus funciones “arbitrales” y las relacionadas con el mando supremo de las Fuerzas Armadas), el estatuto jurídico del Rey y la sucesión en la Corona.

Palabras-clave: La Corona. Monarquía parlamentaria. Estatuto jurídico y funciones del Rey. Sucesión en la Corona.

Abstract: The article describes the legal status of the Monarchy in the Spanish Constitution of 1978 and also discusses some controversial issues related to the legal configuration of the Crown, such as, for example, those relating to the parliamentary monarchy as a political form of the State, the scope of the functions of the King (including its “arbitral” functions and those related to the supreme command of the Armed Forces), the legal status of the King and the succession to the Crown.

Key-words: The Crown. Parliamentary monarchy. Legal status and functions of the King. Succession to the Crown.

AURKIBIDEA: I. SARRERA: PARLAMENTU-MONARKIA, ESTATUAREN EREDU POLITIKOA. II. ERREGEAREN EGINKIZUNAK. 1. Erregea, estatuburu gisa. 2. Erregea, Estatuaren batasunaren eta iraupenaren sinbolo bezala. 3. Erakundeen jardunbide egokia antolatu eta bideratzeko Erregeak dituen eginkizunak. 4. Erregea eta nazioarteko harremanak. 5. Erregea eta Indar Armatuaren gorenko agintea. 6. Erregeari dagozkion beste eginkizunak. III. ERREGEAREN ESTATUTU JURIDIKOA ETA “BERRESPENA”. IV. KOROAREN OI-NORDETZA. V. ERREGEORDETZA. VI. ERREGEAREN TUTORETZA. VII. ADMINISTRAZIO-ERAKUNDEAK KOROAREN ZERBITZURA. 1. Koroak jasotako diru-kopurua. 2. Errege Etxea. 3. Nazio Ondarea.

I. SARRERA: PARLAMENTU-MONARKIA, ESTATUAREN EREDU POLITIKOA¹

Konstituzioaren II. Tituluan, “Koroa” izenburupean, Espainiako parlamentu-monarkiaren arauketa juridikoa egiten da eta Espainiako Konstituzioaren 1.3 artikulua araberan, Espainiako estatuaren eredu politikoa parlamentu-monarkia da². Hori formula berritzailea da Espainiako kons-

¹ Egileak bere esker ona luzatu nahi dio Arantza Etxebarria Iturrateri hizkuntza-egokitzailerik gisa egindako lan bikainagatik.

² ARAGÓN REYES, M. *Dos estudios sobre la Monarquía parlamentaria española*. Madril: Civitas, 1990; ARAGÓN REYES, M., *La Corona*, *Estudios de Derecho Constitucional*, Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2009, 703-704. or.; ARIÑO ORTIZ, G., *La Corona, reflexiones en voz baja*, Madril: Iustel, 2013; BELDA PÉREZ- PEDRERO, E., *El poder del Rey. Alcance constitucional efectivo de las atribuciones de la Corona*, Madril: Cuadernos del Senado (serie minor), 2003; CANDO SOMOANO, M. J., *Monarquía y Constitución*, Madril: Colex, 2001; DÍAZ REVORIO, F.J., “La Corona desde la perspectiva jurídico-constitucional”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 71 (2004), 397-409. Or.; GARCÍA CANALES, M. *La Monarquía parlamentaria española*. Madril: Tecnos, 1991; GÓMEZ SÁNCHEZ, Y. *XXV años de monarquía parlamentaria*. Madril: Sanz y Torres, 2006; GÓMEZ SÁNCHEZ, Y. *La Monarquía Parlamentaria: Familia Real y Sucesión a la Corona*. Madril: Ed. Hidalguía, 2008; HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. “El Rey. Artículo 56”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Cortes

tituzio-historian. XIX. mendean, konstituzio aurrerakoienek (hala nola 1812koak eta 1869koak), herriaren botere konstituziogilea aitortu eta nazioaren subiranotasuna aldarrikatzen zutenek, monarkia gobernu-eratzat jo zuten. Aitzitik, Konstituzio moderatuek (hala nola 1845ekoak eta 1876koak) ez zuten horrela jokatu, haien arabera koroa Espainiako konstituzio historikoaren edo barruko konstituzioaren atala baitzen, eta Gortee-kin batera subiranotasuna eta botere konstituziogilea zituen; hau da, konstituzio horietan ezarritakoari erreparatuz, koroa gobernu-era bat baino gehiago zen, estatu-ereduaren oinarritzko osagaia alegia.

Doktrinaren atal handi batek EKren 1.3 artikulua kritikatu du, estatu-eredua (monarkia edo errepublika) eta gobernu-era nahasten dituelako. Errepublikaren kasuan, Errepublika “presidentzialista”, “erdi-presidentzialista”, “parlamentarioa”, “asanblearioa”, etab. bereiz daitezke. Monarkia, aldiz, izan daiteke “absolutua”, “mugatua” edo “konstituzio-monarkia” (koroaren titularra botere betearazlearen titularra da eta Parlamentuarekin batera botere legegilea du); “dualista” edo “orléansdarra” (koroaren botereak mugatuagoak dira eta Gobernuako kideek konfiantza bikoitza behar dute: koroarena eta Parlamentuarena); eta “parlamentarioa” (erregeak ez du botere betearazle zehatzik eta estatuko gorengo magistraturaren titularra den arren, magistratura horrek balio sinboliko edo integratzaile hutsa du. Benetako botere betearazlea gobernuaren esku

Generales / EDESA, 1996, V. lib., 39-76. or.; LUCAS VERDÚ, P. (zuz.). *La Corona y la Monarquía parlamentaria en la Constitución de 1978*. Madril: Universidad Complutense, 1983; MENÉNDEZ REXACH, A. *La Jefatura del Estado en el Derecho Público Español*. Madril: Instituto Nacional de Administración Pública, 1979; OLIVER ARAUJO, J., “La reforma constitucional de la Corona: una propuesta radical y diez moderadas”, *Revista de Derecho Político*, 77 (2010); OLIVIER LEÓN, B., *Monarquía y Estado Constitucional*, Madril: Tecnos, 2015; ROLLNERT LIERN, G. *La Jefatura del Estado: símbolo e integración política en la Constitución vigente*. Valentzia: Minim, 2002; TORRES DEL MORAL, A. eta GÓMEZ SÁNCHEZ, Y. (koord.). *Estudios sobre la Monarquía*. Madril: Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, 1995; ZZ.AA. *La Monarquía Parlamentaria (Título II de la Constitución)*. VII *Jornadas de Derecho Parlamentario*. Madril: Diputatuen Kongresua, 2001.

dago, eta azken hori Parlamentuaren konfiantzaren menpe dago soil-soilik, ez monarkaren konfiantzaren menpe).

Egia esan, EKren 1.3 artikuluan erabilitako formulak bi ikuspegi bil-tzen ditu: monarkia estatuko buruzagitzaren era gisa (koroa horren iku-rra da), Errepublikaren aurrez aurre, eta gobernu era gisa, estatuaren bo-terea egituratuz. Espainian monarkiak eredu parlamentarioa du eta, ikusi dugun moduan, esaera ospetsuari jarraituz, erregeak “erreinatzen du baina ez du gobernatzen” (“*règne, mais ne gouverne pas*”). Erregeak estatuko gorengo magistratura du, hau da, “eraginpeko magistratura” deitu izan dena. Eredu hori Konstituzioko II. Tituluan bertan juridikoki zehaztuta dago. Hala ere, monarkiatik hurbil dauden beste eredu batzue-tan monarkia ez du Konstituzioak zehazten, konbentzioek eta ohiturek baino (zalantzarik gabe, britainiar kasua aipa daiteke, baina beste he-rrialde batzuetan ere beste horrenbeste gertatzen da, hala nola Belgikan eta Holandan; leku horietan, parlamentu-monarkia bat dator konbentzio eta ohiturekin, konstituzio-testuetan ezarritakoarekin baino, azken ho-rietan hitzez hitz “konstituzio-monarkia hutsa” deitu izan dena zehazten baita, erregea botere betearazlearen titularra dela).

Edozein modutan ere, eta doktrinaren atal handi batek adierazi duen moduan, Konstituzioak Espainiako monarkia gure inguruko demokrazie-tako parlamentu-monarkiekin homologatu du, eta nahiko argi utzi du tes-tura bildutako monarkiak ez dituela historian zehar eduki izan ahal zituen botereak, hau da, XIX. mendeko konstituzioetan izan zitzakeen botereak. Horrez gain, monarkia horrek ez du zerikusirik diktadura frankistaren erre-gimenak 1947ko Oinordetzari buruzko Legean eta Estatuaren 1967ko Le-ge Organikoan ezarritako monarkiekin, eta ez ditu Eraldaketa Politikorako 1977ko Legeak ematen zizkion botereak. Beraz, ohiko parlamentu-monar-kiaren aurrean gaude, eta koroak ordezkaritza-, eragin- eta bitartekaritza-eginkizunak ditu estatuko gainerako botereen artean. Hori da, hain zuzen ere, EKren 1.3 artikuluan erabilitako formularen benetako esanahia.

II. ERREGEAREN EGINKIZUNAK

Esan bezala, Konstituzioaren II Tituluan, “Koroa” izenburupean, Espainiako parlamentu-monarkiaren arauketa juridikoa egiten da. Lehenengo artikuluan, 56.1 artikuluan alegia, Erregearen kokapen konstituzionala eta eginkizunak definitzen dira³. Eginkizun horiek 62. artikuluan zehazten dira. Honako hauek dira:

1. Erregea, estatuburu gisa

Erregea *estatuburua* da, eta beraz, estatuko organoetako bat da, eta ohi-ko eginkizun betearazleaz bestelako eginkizunak ditu. Eginkizun horiek Konstituzioaren testuan bertan jaso dira, eta horiek direla bide, ohoreari eta protokoloari begira lehentasuna du estatuko gainerako botereekin alderatuz gero. Izan ere, Konstituzioan Koroa estatuko gainerako botereen aurretik jorratzen da, II. Tituluan, Konstituzioaren Atal Organikoa abiatzen duen horretan. Horrez gain, Konstituzioak II. Titulu horri zurruntasun berezia eman dio, Titulu horren inguruko konstituzio-aldaketa guztiak 168. artikuluan ezarritako eraldaketa-prozedura areagotuaren bidez izapidetu behar dira.

2. Erregea, Estatuaren batasunaren eta iraupenaren sinbolo bezala

Erregea *Estatuaren batasunaren eta iraupenaren sinboloa* da⁴, hau da, estatua “pertsonifikatu” eta ordezkutzen du, eta horregatik, estatuburuaren berezko eginkizunak dagozkio, hala nola estatuko egintza garrantzitsuenak

³ ASTARLOA VILLENA, F. “Atribuciones del Rey: art. 62 (apartados a-e)”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996, V. lib., 217-229. or.; BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. *El poder del rey. Alcance constitucional efectivo de las atribuciones de la Corona*. Madril: Senatua, 2003; LAFUENTE BALLE, J.M. “Atribuciones del Rey: artículo 62 (apartados f-j)”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Cortes Generales / EDESA, 1996, V. lib., 231-260. or.

⁴ CANDO SOMOANO, M^a J. *El Rey como “símbolo de unidad y permanencia del Estado” en la Constitución española de 1978*. Madril: Diputatuen Kongresua, 2003.

formalizatzea. Besteak beste, aipamen berezia egin behar zaio legegintza-egintzak formalizatzeari eta, zehatzago, legeak sendetsi eta aldarrikatzeari (EKren 62. art.)⁵. Dakigunez, Espainiako zuzenbide historikoan Erregearen sendespena legeak baliozkoak izateko betekizuna zen: Gorteek legeak onetsi behar zituzten eta Erregeak ospe handiz baieztatu (“sendetsi”) behar zituen, eta horrela testuaren edukiarekin ados zegoela adierazten zuen. Bi erakundeek subiranotasuna elkarrekin zuten, eta beraz, biek onetsi behar zuten legegintza-testua. Gorteek testua onesten bazuten baina monarka harekin ados ez bazegoen, ez zuen testua sendesten eta testuari “betoa” jartzen zion. Kasu horretan ez zegoen legerik, betoa edo sendespenik ez zegoelako. Bestalde, aldarrikapena egintza betearazlea baino ez zen, eta legeari nahitaezko indarra ematen zion soil-soilik. Argitalpena lege berria modu fede-emailean jakinaraztea zen, legeak eskatutako izapide guztiak beteta zituela adieraziz, eta legea betetzea agintzen zen. Testua Aldizkari Ofizialean argitaratzen zen (orduan, *Gaceta de Madrid* zen eta gaur egun, Estatuko Aldizkari Ofiziala). Horiek ziren legeak indarrean jartzeko bete behar ziren baldintzak. Gaur egun, Erregearen beto-eskubidea eta parlamentu-monarkia bateraezinak dira, eta horregatik, gaur egun “sendespena” Monarkak “gauzatu beharreko egintza” da. Egintza formal huts horren bidez legearen izapidetza burutzen da eta Erregeak ezin dio uko egin. Egintza horren bidez, Gorteek onetsitako testua juridikoki formalizatzen da.

Legeen errege-sendespenari gaur egungo parlamentu-monarkietan tradizio historikoaren ondorioz eusten zaio, baina iraganeko esanahia galdu du, eta aldarrikapena Erregeak gauzatu beharreko egintza da. Hortaz, gure sistema juridikoan Erregeak Gorte Nagusiek onetsitako legeei

⁵ ARAGÓN REYES, M. “La Monarquía parlamentaria y la sanción de las leyes”. In MARTÍN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord). *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al Profesor García de Enterría*. Madril: Civitas, 1991, III. lib., 1941-1960. or.; RODRÍGUEZ-ZAPATA, J. *La sanción, promulgación y publicación de las leyes*. Madril: Tecnos, 1987; SOLOZÁBAL, J.J. *La sanción y promulgación de la ley en la monarquía parlamentaria*. Madril: Tecnos, 1987.

ezin die sendespena ukatu. Sendetsi zein aldarrikatzea “gauzatu beharreko egintzak” dira biak, EKren 91. artikulua zehatz-mehatz ezarri duen moduan: “Erregeak hamabost eguneko epean sendetsiko ditu Gorte Nagusietan onetsitako legeak, eta halakoak aldarrikatuko ditu eta berehalaxe argitaratzeko aginduko du”.

Spainian, gaur egun, sendetsi eta aldarrikatzea batera egiten dira⁶. Erregeak ez ditu autonomia-erkidegoetako parlamentuetan onetsitako legeak sendetsi behar. Autonomia-erkidego horietako estatutuen arabera, lege horiek autonomia-erkidego bakoitzeko presidentek aldarrikatuko ditu Erregearen izenean. Amaitzeko, Erregeak konstituzio-eraldaketa sendesteko duen eginbeharrari dagokionez, egia esan, orain arte Konstituzioa egindako eraldaketak (zehazki, 1992an -13.2 artikulua- eta 2011an -135. artikulua-), Erregeak sendetsi egin ditu.

Halaber, Erregeari hurrengo hauek dagozkio: Ministroen Kontseiluan erabakitako dekretuak luzatzea (gauzatu beharreko egintza da eta, legeen sendespenarekin gertatzen den bezala, Erregeak ezin dio dekretuak luzatzeari uko egin), enplegu zibil eta militarrek ematea, eta legeen arabera ohoreak eta sariak banatzea -62.f art.-; konstituzio-organismo desberdinetako titularrak berritzeko beharrezkoak diren deialdi eta izendapenak egitea (Gorte Nagusietarako deialdiak egitea eta haiek desegitea -legegintzaldi bakoitzaren hasieran egiten den bilerari buruz ari dela ulertu behar da- eta hauteskunderako deia egitea -62.b art.-; erreferendumerako deialdiak egitea -62.c art.-; Gobernuko lehendakartzarako hautagaia

⁶ Halatan, Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitalpenean, lege-lerruneko arau guztien goiburuan sendespena eta aldarrikatzea protokolozko formula ezagunaren bidez lotzen dira: “Joan Karlos I.ak, Espainiako Erregeak, berau ikusi eta ulertzen duten guztiei: Jakin ezazue Gorteen onetsi dutela eta Ni honako hau sendestera nator...”. Jarraian, arauaren testua jasotzen da eta amaieran adierazpen hau agertzen da: “Hortaz, espainiar guztiei, herritar nahiz agintari, agintzen diet honako lege hau bete eta betearaz dezaten”. Bukatzeko, monarkaren sinadura agertzen da, eta horrekin batera “kontrasinadura” (Gobernuko presidentearen berrespena).

proposatzea, eta, behar denean, hori izendatzea, eta haren eginkizunei amaiera ematea -62.d art.-; eta Gobernuko kideak izendatu eta banantzea, lehendakariak hala proposatuta -62.e art.-). Modu berean, atal honetan jaso beharko lirateke hurrengo hauen izendapenak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak (EKren 122.3 art.), Estatuko Fiskal Nagusia, Konstituzio Auzitegiko magistratuak (159.1 art.), autonomia-erkidegoetako lehendakariak (152.1), etab.

Estatuaren iraupenaren sinboloa ere bada. Hori dela eta, monarkiaren dinastiaren jarraipena (EKren 57.1 art.), nola edo hala, estatuaren jarraipenaren sinboloa da. Batasun-izaera sinbolikoari dagokionez, monarkia lurralde eta erresuma desberdinen sintesia da. Lurralde eta erresuma horiek historian zehar monarkia hispanikoaren menpe bilduta egon dira, eta gaur egun Espainiako estatua osatzen dute. Lurraldeen arteko batasun-faktore horren erakusgarri, Erregeak, estatuburu gisa, eta Asturiasko Printzeak, koroaren oinordekoa den aldetik, zin egin behar dute haien eginkizunetan zintzo arituko direla, Konstituzioa eta legeak bete eta betearaziko dituztela, eta herritarren eta *autonomia-erkidegoen* eskubideak errespetatuko dituztela (EKren 61.1 art.).

3. Erakundeen jardunbide egokia antolatu eta bideratzeko Erregeak dituen eginkizunak

Erregeak *antolatu eta bideratzen du erakundeen jardunbide egokia*. Bideratze-eginkizun hori ez da nahasi behar frantziar doktrinario liberalek (CONSTANT, etab.) eta XIX. mendean Europako zenbait konstituziok “botere moderatzaile” kontzeptuaren bidez ulertzen zutenarekin⁷. Izan ere, Erregeak ezin du Gobernuko presidentea izendatu eta kargutik kendu (kargurako hautagai bat proposatu dezake soilik, eta hautagai hori Diputatuen Kongresuak izendatu behar du; hautagai hori kargutik ken-

⁷ Besteak beste, Portugaleko 1826ko Konstituzioan eta Frantziako 1830eko Konstituzioan.

tzeko, Diputatuen Kongresuan zentsura-mozioa onetsi behar da edo ganbera horretan konfiantza-arazoa galdu behar du). Erregeak ezin ditu ministroak izendatu edo kargutik kendu (Gobernuko presidentek proposatuta egin behar du), eta legeak sendesteari ezin dio uko egin (ez baitu beto-eskubiderik). Horrez gain, ezin du gerra-adierazpenik egin eta ezin du bakea sinatu, eta ezin ditu nazioarteko itunak sinatu, berretsi edo salatu (esparru horretan, eskumenak Gobernuarenak eta Gorteenak dira, eta Erregeak bere sinadurarekin –sinadura hori beharrezkoa da– erakunde horiek erabakitako egintzak formalizatu baino ez ditu egiten).

Zer dira orduan Koroari dagozkion antolatze- eta bideratze-eginkizunak?⁸ *Bideratze-eginkizunari* dagokionez, oro har onartzen da monarka “eraginpeko magistratura” dela, estatuko gainerako erakundeei dagokieenez. Britainiar konstituzionalismoak ere antzeko formula erabiltzen zuen, BAGEHOTek bildutakoa. Horren arabera, monarkak “kontsultatua izateko, adore emateko eta ohartarazteko eskubidea du” (“the right to be consulted, the right to encourage, the right to warn”). EKren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, Erregeak “estatuko arazoen berri jasotzeko eskubidea” du. Baina monarkaren eskubidea ez da soil-soilik Ministroen Kontseiluko bilkuren buru izatea, egokitatzat jotzen duenean, Gobernuko presidentek eskatuta beti, Konstituzioko artikulua horretan esanbidez ezarri den moduan. Horrez gain, monarkak presidentearekin eta Gobernu gainerako kideekin elkarrizketak (“despatxuak”) izaten ditu, eta estatuko beste agintari batzuekin entzunaldiak izaten ditu. Estatuaren Administrazioiko Departamentu desberdinek Erregeari laguntza eman behar diote (txostenak, irizpenak, aholkuak, etab.), koroak bere betebeharrak bete ditzan (Errege-etxea berregituratzen duen maiatzaren 6ko 434/1988 Errege Dekretuaren 13. art.).

Bestalde, adore emateko eta ohartarazteko eskubideak direla bide, Erregea gobernuaren eta estatuko gainerako erakundeen kontseilaria da.

⁸VEGA, P. DE, “El poder moderador”. *Revista de Estudios Políticos*. 2002, 116. zk., 7-24. or.

Eginkizun horiek egikartzeko ez dago arau idatzirik, zuhurtzia, neurritasun, diskrezio, arreta eta neutraltasun al bait zorrotzenarekin gauzatu behar dira. Edonola ere, eginkizun horiek ez dute monarkaren botere eraginkorra (*potestas*) islatzen, botere hori estatuko gainerako erakundeei baitagokie eta ez berari. Monarkaren eragin, ospe eta aginte moralaren isla dira (*auctoritas*).

Horrez gain, monarkaren *antolatze-eginkizuna* aurreko guztiarekin lotuta dago zuzenean, eta koroaren neutraltasun instituzionalak eratoritzen du. Koroa bizitza politikoan lehiakide diren alderdien gaineratik dago. Antolatze-botere horrek ez ditu, besteak beste, Frantziako Errepublikako presidentearen eskumen zehatzak, azken horrek Gobernuaren berrespena behar ez duten berezko botereak baititu⁹. Eta gainera ez ditu, bere garaian ikusi genuen bezala, esparru horretan Espainiako erregeak 1977ko Eraldaketa Politikorako Legean zituen eskumenak. Egia esan, Erregearen antolatze-eginkizunak ondore nabariagoak izan ditzake politika-gehiengorik ez egotean gobernu-lana zailtzen bada.

Konstituzioan esanbidez ezarri ez den arren, doktrinaren atal batek ulertzen du Erregeak antolatze-eginkizun hori mezu publikoen bidez egikaritu ahal duela, egoera jakin batzuetan. Normalean, erakundeen modu erregularrean funtzionatzen badute, koroaren diskurtso eta mezuek ez dute antolatze-izaerarik izaten, Erregearen beste eginkizun batzuekin lotuta egoten dira, hala nola, izaera sinbolikoa, zeremoniala eta nazioartekoa. Praktikan, aipatu ditudan eginkizunetaz harago doan koroaren mezu bakarra herritarrei Gabonetan bidaltzen diena da. Mezu horretan, Erregearen egintza eta diskurtso guztiak bezala gobernuarekin koordinatuta dagoen arren, aipamen zuzenak egiten zaizkio herrialdeko errealitate politiko, sozial eta abarrei, eta monarkak iradokizun eta balo-

⁹ Adibidez, Nazio Biltzarra desagitea, erreferendumerako deialdia egitea, lehen ministroa izendatzea edo Frantziako 1958ko Konstituzioaren 16. artikuluan ezarritako salbuespen neurriak hartzea.

razio batzuk egiten ditu, eta modu horretan aipatzen ari garen antolatze-eta bideratze-eginkizunera gehiago hurbiltzen da. Erregearen mezuek, hala ere, garrantzi handiagoa izan dezakete konstituzio-mailako krisietan. Horrela gertatu zen Felipe VI.a, Espainiako erregearen 2017ko urriaren 4ko mezuarekin, Kataluniako krisiari buruzkoa.

Horrez gain, Erregeak, Konstituzioaren arabera, kasu bakar batean nolabaiteko antolatze-eginkizuna egikaritu dezake: Diputatuen Kongresuari Gobernuko lehendakariagaia proposatzen dio. Erregeak, Parlamentuan ordezkari-tza lortu duten talde politikoek izendatutako ordezkariekin kasuan kasuko kontsultak egin eta gero, Kongresuari Gobernuko presidente izateko hautagaia proposatzen dio (EKren 62.d / 99.1 art.). Hala ere, hautagai hori presidente izateko, Kongresuak izendatu behar du. Hortaz, Erregearen proposamena askea izan arren, oso baldintzatuta dago, batetik, Kongresuaren osaera dela bide eta, bestetik, proposatutako hautagaiak ganberan izan ditzakeen babesengatik. Kongresuan parlamentu-gehiengo argia dagoenean, Erregeak gehiengoak babestutako hautagaia proposatu behar du. Baina gehiengorik ez badago, Erregearen proposamen-ahalmenak aukera zabalagoa izango du. Zentzu horretan, monarkaren jardunak antolatze-jardueratik hurbilago dauden ondoreak izan ditzake. Dena delarik ere, Gobernuko lehendakaria izendatzeko Konstituzioan ezarritako beste kasuan (EKren 114. art.) Erregeak ez du inolako aukerarik: Kongresuko erabateko gehiengoz Gobernuaren aurkako zentsura-mozioa onesten den kasuaz ari gara. Alde batetik, horrek esan nahi du Gobernuko aurreko lehendakariak bere dimisioa aurkeztu behar diola Erregeari. Eta bestetik, mozio horretan jasotako Gobernuko Lehendakari-zarako hautagaiak Kongresuaren konfiantza jaso duela ulertuko da eta, beraz, Erregeak Gobernuaren lehendakari izendatuko du hautagai hori.

Ganberak desegiten diren kasuetan, Erregearen jarduera beharrezkoa da eta, horregatik ez du inolako aukerarik. Kasu desberdinak gerta daitezke: inbestidurako lehenengo botaziotik bi hilabete igaro ondoren

hautagai batek ere Kongresuaren konfiantza ez baldin badu lortu, Erregeak Diputatuen Kongresua eta Senatua desegingo ditu (EKren 99.5 art.) eta hauteskondeetarako deialdia egingo du. Bestalde, Gobernuko lehendakariak proposatuta, Kongresua, Senatua edo bi ganberak behar baino lehenago desegiten badira, Ministro Kontseiluan eztabaida izan ondoren eta EKren 115. artikuluan ezarritako betekizunak beteta, Erregeak desegite hori aginduko du eta Desegite-dekretuak hauteskunderen data finkatuko du (EKren 115.1 art.).

4. Erregea eta nazioarteko harremanak

Erregea *Espainiako estatuaren ordezkari goren bereganatzen du nazioarteko harremanetan eta, batez ere, haren erkidego historikoko nazioetan*¹⁰. Atal honetan bi eskumen biltzen dira: bata juridikoa eta bestea sinbolikoa. Lehenengoari dagokionez, nazioarteko harremanen esparruan, Erregea estatuko burua da. Nazioarteko zuzenbidean ezarritakoaren arabera, Erregea Espainiako estatuko nazioarteko ordezkari goren da. Hori dela eta, Erregeak enbaxadorei eta diplomaziako beste ordezkariak egiaztatzea ematen die, eta Espainian atzerriko ordezkariak haren egiaztatzea jasotzen dute (EKren 63.1 art.); berari dagokio estatuaren adostasuna agertzea, itun bidez nazioartean betebeharrak bereganatzeko, Konstituzioarekin eta legeekin bat etorriz (EKren 63.2 art.); eta Erregeari dagokio, Gorte Nagusiek aurretiaz baimena emanaz gero, gerra aldarrikatu eta bakea egitea (EKren 63.3 art.). Edozein kasutan ere, argi izan behar da Erregeak egintza horiek formalizatu egiten dituela soil-soilik, baina ez dituela erabakitzen. Izan ere, ez da ahaztu behar Gobernuak estatuko kanpoko politika gidatzen duela (EKren 97. art.) Gorte Nagusiekin ba-

¹⁰ FERNÁNDEZ-PALACIOS MARTÍNEZ, M., *Rey, Constitución y Política Exterior*, Madril: Marcial Pons / Ministerio de Asuntos Exteriores y Cooperación, 2010; PÉREZ VERA, E. eta RODRÍGUEZ CARRIÓN, A.J. "Atribuciones internacionales del Rey: artículo 63". ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDERSA, 1996, V. lib., 261-278. or.

tera, eta azken horiek baimendu behar dituztela itun nagusiak eta gerra aldarrikatu eta bakea egitea (EKren 63. / 94. art.).

Aipatutako bigarren eskumenak, Espainiako estatuaren ordezkaritza go-rena izateak haren erkidego historikoko nazioekiko harremanetan, izaera sinbolikoa du gehienbat. Eskumen horrek esparru horretan ez dakar Koroaren inolako eskumen juridiko berezirik, koroaren beste funtzio sinboliko baten aitorpena baino ez da, Espainiaren eta Espainiako monarkiaren atal izan ziren herrien arteko lotura historiko gisa. Herri horiekin arlo guztietan lehentasunezko harremana mantendu nahi da. Zalantzarik gabe, horren adibiderik argiena da Iberoamerikako herrietako estatuburuak eta gobernuburuak egiten dituzten aldizkako goi-bileretan Erregea egotea.

5. Erregea eta Indar Armatuen gorengo agintea

Konstituzioak Erregeari beren-beregi esleitzen dion beste eginkizun bat, azalpen berezia merezi duena: 62.h artikulua arabera, Erregeari dagokio Indar Armatuen gorengo agintea izatea¹¹. Konstituzioaren Atariko Tituluan kokatutako 8. artikulua dela bide, Espainiako Konstituzioa “bitxia” da gure inguruko beste konstituzio-testuekin konparatzen badugu. Artikulu horren arabera, Indar Armatuen eginkizuna da Espainiako subiranotasuna eta independentzia bermatzea, eta haren lurralde-osotasuna eta konstituzio-antolamendua zaintzea. EKren 62.h artikulua arabera Erregeari Indar Armatuen gorengo agintea izatea dagokionez, eztabaida interesgarria sortu da monarkak esparru horretan dituen benetako eskumenen inguruan.

Nire ustez, eta bat nator doktrinaren sektore aipagarri batekin (TORRES DEL MORAL, etab.)¹², Konstituzioan argi utzi da Gobernuari dagokiola estatuaren defentsa eta Administrazio militarra gidatzea (EKren 97. art.). Be-

¹¹ LAFUENTE BALLE, J.M. *El Rey y las Fuerzas Armadas en la Constitución*. Madril: EDERSA, 1987; OTTO y PARDO, I. de, “El mando supremo de las Fuerzas Armadas”. *Revista Española de Derecho Constitucional*. 1988, 23. zk., 11-43. or.

¹² TORRES DEL MORAL, A. eta CANDO SOMOANO, M.J. *Monarquía y Constitución*. Madril: Colex, 2001.

raz, Indar Armatuak Gobernuaren aginduen menpe egongo dira beti. EKren 8. art.tik ezin da inola ere ondorioztatu Indar Armatuei botere autonomoa ematen zaienik. Horrexegatik, Indar Armatuek modu autonomoan jardutea ez litzateke Konstituzioaren arabera izango, ezta krisi egoeretan ere. Kasu horietan, Konstituzioak, 55. eta 116. artikuluen bidez, krisi egoerei aurre egiteko mekanismo bereziak ezarri ditu. Izatez, agintaritzak militarrek “setio-egoera” erabakitzen bada soilik esku har dezake, baina beti Gobernuaren zuzendaritzapean eta Diputatuen Kongresuak aurretiaz baimena emanda. Eta jakina, gerra aldarrikatze eta bakea egiteko Gorte Nagusien baimena behar da beti.

Egia da Erregeak Indar Armatuaren gorengo agintea duela, baina parlamentu-monarkia baten aurrean gaudenez, “gorengo aginte” hori interpretatzerakoan ezin dugu ahaztu Erregearen egintzak berretsi egin behar direla baliozkoak izan daitezkeen (EKren 56.3 / 64. art.), Gobernua baita barne eta kanpoko politika gidatzen duena, baita Administrazio zibila eta militarra, eta estatuaren defentsa ere (EKren 97. art. / GLren 1. art.). Erregearen egintzek berrespenik behar ez duten kasu bakarra, esparru militarrekin lotuta, Erregearen etxeko kide militarrek izendatzea da (EKren 65.2 art.).

Beraz, Indar Armatuaren gorengo agintearekin loturiko Erregearen eginkizun horrek funtzio sinbolikoa eta bideratzailea du batez ere, normalean parlamentu-monarkien titularrei dagokiena. Hau da, Erregeak, herrialdeko gorengo lerruneko militarra den aldetik, Indar Armatuaren aginte sinbolikoa gauzatzen du, baina horrek ez dakar agintzeko botere zuzena Gobernua alde batera utzita, nahiz eta monarkak defentsa nazionalako organoetan parte hartzeari buruzko lege-xedepenetatik hori ondorioztatu. Adibidez, monarkak Defentsa Nazionalako Kontseiluan parte hartzen du, Erregeak Kontseilu horretatik osoko bilkuran informazioa jasotzeko eskubidea du edo Kontseiluaren buru da bileretara doanean¹³. Lege horren aitzin-

¹³ Defentsa Nazionalari buruzko azaroaren 17ko 5/2005 Lege Organikoaren 3. eta 8. art. -aurrerantzean, DNLO-.

solasetik bertatik ere beste horrenbeste ondorioztatzen da, bertan ezarritakoaren arabera Gobernuko lehendakariari egokitzen baitaio Defentsan eragina duten krisi-egoeren kudeaketa eta baita gatazka armatuaren zuzendaritza ere. Orobat, Legearen arabera, Gobernuko lehendakariari laguntzeko Defentsa Nazionaleko Kontseilua sortzen da, aholku-, koordinazio- eta kontsulta-organoa, eta Defentsa ministroari defentsa-politika burutzea eta betetzea egokitzen zaio.

Gai horren inguruan, autore batzuek koroa krisi-magistratura dela esan dute, hots, Konstituzioak krisi larria izanez gero, koroak gaurkotzeko moduko botere-erdigune zehaztugabea izango luke (HERRERO DE MIÑÓN)¹⁴. Beste autore batzuen esanetan, krisia egonez gero, Erregea da konstituzio-ordena defendatzera deituta dagoen lehenengo soldadua. Horretarako, Indar Armaturen agintaritza zuzena eta pertsonala hartzen du, bera baita Konstituzioaren zaindaria (EKren 61. art.an ezarritakoaren arabera, Erregeak, Asturiasko Printzeak eta, hala denean, erregeordeak edo erregeordeek, zin egin behar dute haien eginkizunetan zintzotasunez arituko direla, Konstituzioa eta legeak bete eta betearaziko dituztela, eta herritarren eta autonomia-erkidegoen eskubideak errespetatuko dituztela). Modu horretan, errege-boterearen azken erreserba izango luke (FERNÁNDEZ FONTECHA, PÉREZ DE ARMIÑÁN, etab.)¹⁵.

1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpearen ahaleginean gertatutakoa, nire ustez, krisia izan zen, eta konstituzio-organoen ohiko funtzionamendua eragotzi zen, kolpistek Gobernua eta Kongresua bahituta zituztelako. Egiazki, Joan Karlos I.a erregeak erabaki egokiak hartu zituen egoera zail hura gainditzeko. Baina monarkia demokratiko batean esta-

¹⁴ HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. "La posición constitucional de la Corona". MARTÍN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord). *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al Profesor García de Enterría*. Madril: Civitas, 1991, III. lib., 1921-1940. or.

¹⁵ FERNÁNDEZ-FONTECHA, M. eta PÉREZ DE ARMIÑÁN, A. *La Monarquía y la Constitución*. Madril: Civitas, 1987; FERNÁNDEZ-FONTECHA, M. "De nuevo sobre la posición constitucional del Rey". *Revista de las Cortes Generales*. 1995. 36. zk., 173-181.or.

tuburuak larrialdi hartan egin zezakeen gauza bakarra egin zuen: kolpistek Gobernu eta Parlamentua bahituta zituztenez eta aginduak ezin zituztenez askatasunez eman, Erregea bera izan zen aginduak eman zituena, ez bakarrik Indar Armatupei, baita agintari zibilei ere, haien egin-beharra bete zezaten, hots, konstituzio-ordena zaintzea. Baina horrelako larrialdi-egoera baten aurrean, Gobernu politika nazionala gidatzeko moduan egon izan balitz, Gobernuak berak, eta ez Erregeak, zuzendu beharko zukeen egoera.

6. Erregeari dagozkion beste eginkizunak

Atal hau bukatzeko eta Konstituzioak dioenez, Erregeak *Konstituzioak eta legeek esanbidez ematen dizkioten eginkizunak betetzen ditu*. Adierazpen hori guztiz koherentea da parlamentu-monarkia kontzeptuaren bidez ulertzen den horrekin. Kontzeptu horretan printzipio monarkikoak ez du lekurik, hau da, Erregeak ez ditu bere magistraturari beren-beregi atxikitako ahalmenez bestelakoak, eta Espainiako Konstituzioak nahiko argi utzi nahi izan du hori. Konstituzioak eta legeek eman eta oraindik aipatu ez ditugun eginkizunen artean, grazia-eskubidea erabiltzea aipatu behar da (EKren 62.i art.), Erregearen indultu-pribilegio tradizionala, hain zuzen ere. Hala ere, gure antolamendu juridikoan hori ez da Erregearen borondatearen arabera, izan ere, Erregeak indultua juridikoki formalizatzen du, baina ez du erabakitzen, Legean ezarritakoari jarraituz¹⁶. Lege horri Konstituzioak berak indultu orokorrak baimentzea debekatzen dio. Modu berean, lehendakaria eta Gobernuko gainerako kideak grazia-pribilegiotik kanpo geratzen dira erantzukizun kriminalaren kasuan, EKren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, grazia-pribilegio hori legegintzako herri-ekimenetik kanpo geratzen da (EKren 87.3 art.). Gainera, Konstituzioak beren beregi jasotzen du Erregeari dagokiola errege-

¹⁶ Urtarrilaren 14ko 1/1988 Legea, grazia-eskubidea erabiltzea arautzen duen 1870eko ekainaren 18ko Legea aldatzen duena.

akademien babesgo nagusia izatea (62.j art.). Koroak kultura-arloan oho-
rezko izaerako eginkizuna du, monarkia erakunde horien jatorriari zuzen-
zuzenean lotuta egon baitzen. Ohorezko izaera bera dute Erregea lehen-
dakaritzat duten kultura-jarduerak edo jarduera zientifikoek.

III. ERREGEAREN ESTATUTU JURIDIKOA ETA “BERRESPENA”

Estatuburuaren artean ohikoa da, baita erregimen errepublikano askotan ere, haien egintzen gaineko erantzukizun politikoa ez izatea. Monarkietan, eta zalantzarik gabe, parlamentu-monarkien kasuan, monarkaren erantzukizunik eza erabatekoa da ez bakarrik politikaren esparruan, baita esparru zibilean eta zigor esparruan ere. Esapide frantses ezagunaren arabera, Erregeak “erreinatzen du, baina ez du gobernatzen”, hau da, monarkak beste konstituzio-organo batzuek hartzen dituzten egintzen erabakiak juridikoki formalizatzen ditu, besterik ez. Eta gainera, bere egintzak baliozkoak izan daitezen, estatuko beste agintari batzuek egiaztatu, “berretsi”, behar dituzte (normalean, lehendakariak edo Gobernuako kideren batek)¹⁷. Ho-

¹⁷ FERNÁNDEZ MIRANDA, C. “La irresponsabilidad del Rey. El refrendo, evolución histórica y regulación actual”. *Revista de Derecho Político*. 1998, 44. zk., 225-256. or.; HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. “Refrendo de actos reales: art. 64”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996, V. lib., 279-308. or.; GONZÁLEZ AYALA, M.D. eta TRUJILLO RINCÓN, M.A., “El refrendo del nombramiento regio de los Presidentes de las Comunidades Autónomas”. In ZZ.AA. *Gobierno y Administración en la Constitución*. Madril: Dirección General del Servicio Jurídico del Estado, 1988, I. lib., 747-762. or.; LÓPEZ GUERRA, L.M., “Las funciones del Rey y la institución del refrendo”. In RUIZ-RICO LÓPEZ LENDÍNEZ, J.J. (koord.). *Estudios de Derecho Público en homenaje a Juan José Ruiz-Rico*. Madril: Tecnos, 1997, 151-182. or.; PÉREZ FRANCESCH, J.LI. «El refrendo del nombramiento regio de Presidente de una Comunidad Autónoma». *Revista Jurídica de Catalunya*. 1989, 3. zk., 777-788. or.; PRADOS FRUTOS, E. de. “El refrendo de los actos del Rey”. *Revista del Ministerio Fiscal*. 2003, 11. zk., 175-212. or.; SOLOZÁBAL ECHEVARRÍA, J.J., “Irresponsabilidad del Rey”, in ARAGÓN REYES, M., (zuz.), *Temas básicos de Derecho Constitucional*, Madril: Civitas, 2001, 43.or.; VERA SANTOS, J.M. “El refrendo en la Constitución española de 1978”. *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense*. 1998, 89.

rrenbestez, egintza horietatik eratorritako erantzukizun hipotetikoa ezin zaio Erregeari egotzi, Erregearen egintzak egiaztatzen dituztenei dagokie, izan ere, egintzok egiaztatzean horien gaineko erantzukizun osoa hartzen dute. Konstituzio zuzenbide britainiarrean klasikoak diren bi esapide erabiliz, Erregeak ezin du bakarrik jardun (“the King cannot act alone”), eta ez du erantzukizunik berak hartzen ez dituen erabakien gainean; estatuko beste agintari batzuek baimentzen dituzten erabakiak “formalizatu” besterik ez ditu egiten (“the King can do no wrong”). Beraz, berresten duten agintari horiek izango dira erabakien erantzuleak.

Espainiako Konstituzioaren kasuan, 56. artikulua argia da horren inguruan: “Erregea bera bortxaezina da, eta ez du erantzukizunik. Haren egintzak berretsita daude beti 64. artikuluan ezarritako eran, eta, aipatu berrespenik gabe, ez dira baliozkoak, 65.2 artikuluan xedatutakoa salbu.” Hortaz, eta 64.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, “Erregearen egintzei begira, erantzukizuna izango dute egintzok berretsi dituztenek”. Ondorenez, Erregearen ez-erantzuletasuna berrespenari zuzen-zuzenean lotuta dago.

Berrespena parlamentu-sistemaren hastapenetan sortu zen, monarkaren ahalmenak mugatzeko. GONZÁLEZ-TREVIJANOK¹⁸ idatzi duenez, berrespena egintza juridiko publikoa da, eta horren bidez, berresle izeneko subjektuak estatuburuak sinatutako egintza kautotu edota bere gain hartzen du, bere sinadura jarrita, bere presentziarekin edo agindutako funtzio publikoak betetzen jarraituz, denboran eta forman, edu horretan beharrezko baliozkotasuna emanez. Horrenbestez, Erregearen egintzen baliozkotasun-baldintza da, berrespenik gabe egintza horiek baliogabeak baitira. Berrespenaren izaera juridikoari dagokionez, zenbait teoria defendatu dira. Tratatu-idazle batzuek berreslearen eta berretsiaren arteko

zk., 309-345. or.; TORRES MURO, I., “Refrendo y monarquía”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 87 (2009), 43-70. or.

¹⁸ GONZÁLEZ-TREVIJANO SÁNCHEZ, P. *El refrendo*. Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 1998.

borondate-akordioaz hitz egin dute; beste zenbait autorek egintza konplexu bat aipatzen dute, eta horretan bi borondatek bat egiten dute, baina egoera desberdinean: berreslearen borondateak berretsiaeren borondatea zehazten du. Beste doktrina-sektore batek azpimarratutakoaren arabera, berrespenak teknika izaera du eta erabakia berreslearen eskuetan uzten du, Erregearen eskumenak erabakitze-edukirik gabe utziz.

Konstituzio Auzitegiaren arabera¹⁹, erregearen egintza guztiak berretsi egin behar dira -EKren 56.3 artikulua berrespenetik bereziki baztertzen dituen kasuak izan ezik, berehalaxe aztertuko ditugunak-; berrespenik gabe, egintza baliogabea da; 64. artikuluan ezarritako moduan egin behar da; bistakoa denez, agintari berresleak Erregearen egintzaren erantzukizuna bere gain hartzen du; eta egintza berresten duen pertsona egintza horren egilea izan daiteke edo ez (pentsa dezagun, esaterako, legeak sendestea eta aldarrikatzea. Kasu horretan, egileak Gorte Nagusiak dira, baina organo berreslea Gobernuako lehendakaria da. Hau da, botere betearazlearen burua da egintza antolamendu juridikora egokitzen dela egiaztatzen duena, egintza onestean esku hartu barik).

Berresteko legitimazioa duten pertsonen dagokienez, Konstituzio Auzitegiak argi utzi du Konstituzioan (64.1 eta 99. artikulua) beren beregi baimenduta dauden pertsonen soilik egin dezaketela eta estatuko beste edozein agintaririk ezin duela egin. Arau orokorra da Gobernuako kideak direla Erregearen egintzak berresteko legitimazioa dutenak. Gehienetan, Gobernuako lehendakaria izaten da berrespena gauzatzen duena, baina ministro bakoitzak ere egin dezake kasuan kasuko jardun-arloan. Salbuespena Diputatuen Kongresuko lehendakariarena da, bera baita EKren 99. artikuluan ezarritako kasuetan Erregearen egintzak berresteko ardura duena, hots: Kongresuan aurkeztzen den Gobernuaren lehendakaritzarako hautagaia proposatzea, Gobernuako lehendakari izendatzea; eta Gorte

¹⁹ Otsailaren 6ko 16/1984 eta urtarrilaren 27ko 5/1987 KAE.

Nagusiak desegitea hautagai bat ere ez baldin bada lehendakari izendatu, inbestidurarako lehenengo botaziotik bi hilabete igaro ondoren. Eta beste inor ere ez, izan ere, berrespena ezin da beste organo batzuetan eskuordetu eta Konstituzioa baino lerrun txikiagoa duten arauk ezin dute ahal horren kasuan titular berririk gehitu²⁰.

EKren 56.3 artikuluan ezarritakoaren ildotik, Erregearen egintza guztiek, juridikoki baliozkoak izateko, berretsita egon behar dute beti 64. artikuluan ezarritakoari jarraituz, EKren 65.2 artikuluan beren beregi bildutakoak salbu. Azken hori ez da zuzena, 65.2 artikuluan berrespenetik salbuetsitako egintza bakar bat baitago: Erregearen etxeko kide zibil eta militarrek izendatzea eta kentzea. 56.3 artikulua beren-beregi aipatu ez arren, berrespenetik salbuetsita dago EKren 65. artikulua lehenengo paragrafoa bildutako kasua. Horren arabera, Erregeak, estatuaren aurrekontuetatik, oso-osoko diru-kopurua jasotzen du, bere familia eta etxeari eusteko, eta askatasunez banatzen du kopuru hori. Hau da, diru-kopurua urtero Gorteei xedatzen dute, ez du Erregeak erabakitzen; Erregeak askatasunez erabakitzen du nola banatu diru hori. Konstituziogileak “askatasunez” hitza erabiltzen duenean, egintza honetan ere Erregeak inolako berrespenik behar ez duela ulertu behar da.

Halaber, eztabaida handia sortu da Erregeak herritar partikular moduan garatzen dituen egintza jakin batzuen inguruan, ez baitago argi horiek berrespenik behar duten edo ez. Printzipioz, berrespenik behar ez dutela pentsatu behar da. Modu horretan, Erregearen ondare pribatuaren administrazioari buruzko egintzek berrespenik behar ez dutela ulertu izan da, eta Erregeak ezkontzeko ere ez du baimenik behar. Baina Erre-

²⁰ Horregatik, Konstituzio Auzitegiak Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen, Jaurlaritzaren Legearen, 4. artikuluko 2. paragrafoa konstituzioaren aurkakoa zela adierazi zuen (urtarrilaren 27ko 5/1987 KAE eta urtarrilaren 29ko 8/1987 KAE). Artikulu horren arabera, “*Lehendakaria izendatzeazko Errege-Dekretua Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak sendetsiko du*”. Baina Konstituzio Auzitegiak argi utzi zuen Estatuko Gobernuaren lehendakaria dela izendapena berretsi behar duena.

geak berrespena behar du tronuan oinordeko izateko eskubidea duen pertsona baten ezkontza debekatzeko (EKren 57.4 art.), izan ere, funtsean ez da bere-berezko egintza. Testamentuan tutorea izendatzeari dagokionez, doktrinan biziki eztabaidatutako gaia da, izan ere, printzipioz egintza pribatua izan arren, esparru politikoan eragina izan dezake. Beraz, agian izendatze horrek berrespena beharko luke.

Berrespenaren formari erreparatuz, ohikoena berresleak estatuburuaren egintzak kontrahitzea da (monarkaren sinaduraren alboan egintza berresten duenaren sinadura agertzen da). Baina berresteko beste modu batzuk ere badaude. Bata “isilbidezko berrespena” deitzen dena da, hau da, Gobernuak kideren bat Erregearen ondoan egoten da jarduera ofizialetan, eta horrela, Erregearen gaineko erantzukizuna bere gain hartzen du. Beste bat “ustezko berrespena” da, eta horren arabera, Gobernuak monarkaren jardun guztien gaineko erantzukizuna bere gain hartzen du, monarkarekin bat ez etortzeagatik dimisioa aurkeztu ezean.

Berrespenaren ondoreei dagokienez, aurretik ere ikusi dugu berrestea Erregearen egintzek baliozkotasuna izateko sine qua non baldintza dela. Erregearen egintza bat, berrespena behar badu eta berresten ez bada, ez da baliozkoa (EKren 56.3 art.). Modu berean, egintza berrestean, organo berresleak horren gaineko erantzukizuna hartzen du (EKren 64.2 art.), nahiz eta, ikusi genuen bezala, egintzaren gauzatze materiala berari ez egokitu²¹.

Monarkaren erantzukizunaren gaia berriz agertu da Espainiak Nazioarteko Zigor Gortearen 1998ko uztailaren 17ko Erromako Estatutua berrestean²², estatuaren adostasuna emateko parlamentu-baimena dela bide, EKren 93. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, urriaren 4ko 6/2000 Lege Organikoaren bitartez. Estatutuaren 27. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera, “Estatutu hau guztiei berdin apli-

²¹ Urtarrilaren 27ko 5/1987 KAE eta urtarrilaren 29ko 8/1987 KAE.

²² 2000ko urriaren 19ko Berrespen Agiriaren bidez, Estatuko Aldizkari Ofizialean 2002ko maiatzaren 27an argitaratua.

katuko zaie, kargu ofizialean oinarritutako bereizketarik egin gabe. Zehatz esanda, pertsona baten kargu ofiziala edozein izanda ere, estatuburua zein gobernuburua, gobernuko zein parlamentuko kidea, hautatutako ordezkaria zein gobernuko funtzionarioa izan, ez da zigor-erantzukizunetik salbuetsita egongo, eta per se ez da zehapena murrizteko arrazoia izango”. Bestalde, bigarren paragrafoan hurrengo esaten da: “persona baten kargu ofizialak dakartzan ukiezintasunak eta prozedura-arau bereziak, barne zuzenbidearen edo nazioarteko zuzenbidearen arabera, ez dira eragozpen izango Gortek bere eskumena harekin gauza dezan”.

Arauaketa honen helburua “estatuko egintzen” alegazioa saihestea da. Izan ere, modu horretan, Zigor Gortearen Estatutura bildutako delituen gaineko zigor-erantzukizunetik salbuetsiko lirateke agintariak, estatuaren subiranotasunaren babespean. Krimen mota honen gaineko zigor-erantzukizuna egile guztiengana zabaltzen da, kasuan kasuko herrialdeetan agintari lerrunik handiena izan arren. Dena den, espero zen moduan, autore batzuek azaldu dute Nazioarteko Zigor Gorteko Estatutuaren 27. artikulua horrek kontraesanak izan ditzakeela Konstituzioko zenbait artikulurekin alderatuz gero (esate baterako, parlamentarioen, Gobernuo kideen, eta abarren ukiezintasunei eta onurabideei buruzkoak, eta gai honi dagokionez, Erregaren bortxaezintasunari eta bere egintzen gainean duen erantzukizun ezari buruzkoak, Konstituzioko 56.3 artikuluan ezarritakoak).

Hortaz, nork edo nork defendatu du Tratua berresteko adostasuna ematen duen lege organikoa konstituzio-aurkakoa dela. Horrez gain, Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutua berretsi aurretik Konstituzioko zenbait artikulua aldatu behar zirela azpimarratu da, mota honetako klausularen bat erantsiz: “Nazioarteko Zigor Gortearen eskumenei kalterik egin gabe”. Hori dela eta, autoreren batek benetako konstituzio-mutazioaz hitz egin du (TENORIO)²³.

²³TENORIO, P. “Estatuto de la Corte Penal Internacional y Constitución”. *Revista de Derecho Político*. 2001, 51. zk., 57-104. or.

Egia esan, ez zen EKren 95.2 artikuluan ezarritako bidea erabili, izan ere, Gobernuak, Kongresuak eta Senatuak ez zuten Konstituzio Auzitegira jo Tratatu berretsi aurretik kontraesanik zegoen edo ez erabaki zezan. Dena den, beste autore batzuen ustez ez dago kontraesanik, eta haien irizpidea Estatu Kontseiluak babestu du. Kontseiluaren 1999ko uztailearen 22ko Irizpenean (IV-B), Gorteko Estatutuaren 27. artikulua eta EKren 56.3 artikulua bateragarriak zirela defendatu zen, ez baitago kontraesanik. Horren arabera, kontua ez da Erregearen egintzen gaineko erantzukizunik ez egotea, horren orde, baliozkoak izateko berretsi egin behar diren egintza horien gaineko erantzukizuna agintari berreslearen esku uzten da (EKren 56.3 eta 64.2 art.), eta beraz, agintari berresle horrek eta ez Erregeak izango luke balizko “zigor-erantzukizun indibiduala”, Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutuak aipatutakoa.

IV. KOROAREN OINORDETZA

EKren 57. artikulua Koroaren oinordetza arautzen du²⁴, Espainiako konstituzio-tradizioari jarraituz, Cádizeko 1812ko Konstituziotik

²⁴ AGUILERA BARCHET, B. *La figura del Príncipe de Asturias en la Corona de España*. Madril: Dykinson, 1998; BELDA PÉREZ-PEDRERO, E. “Reforma constitucional y sucesión”. In RUBIO LLORENTE, F. eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Consejo de Estado / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 273-295. or.; ESTATU KONTSEILUA. *Informe sobre modificaciones de la Constitución Española*, 2006ko otsailaren 16koa, II. zatia (“Supresión de la preferencia del varón en la sucesión al trono”). Hemen ikus daiteke: RUBIO LLORENTE, F. eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Consejo de Estado / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 62-74. or.; FERNÁNDEZ-FONTECHA TORRES, M. “Algunos problemas derivados de la posible reforma del artículo 57.1 de la Constitución”, in RUBIO LLORENTE, F. eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Estatu Kontseilua / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 297-306. or.; FREIXES, T. “Reforma de la Constitución: igualdad de mujeres y hombres y sucesión a la Corona de España”.

1876ko Berrezarpeneko Konstituziora arte. Aipatutako tradizio horretan Gaztelako oinordetza-sistemaren eredia erabiltzen da, Alfontso X.a Jakinunaren Partidetan aldarrikatua (Bigarren Partidako XV. Tituluaren II. Legea). EKren 57.1 artikuluan hurrengo ezarri da: “Espainiako Koroaren oinordekoak dira Borbongo don Joan Karlos I.a maiestate horren ondorengoak, hura baita dinastia historikoaren jaraunsle legitimoa”. Behin puntu honetan, eta testuaren norainokoa ondo ulertzeko, beharrezkoa da irakurleak gogoan izatea zer testuinguru historikotan eskuratu zuen tronua gaur egungo monarkak. Eta, era berean, kontuan izan behar

GARCÍA TORRES, J. / REQUEJO PAGÉS, J.C., “Sucesión en la Corona”, in ARAGÓN REYES, M., (zuz.), *Temas básicos de Derecho Constitucional*, Madril: Civitas, 2001, 48.or.; RUBIO LLORENTE, F eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Estatu Kontseilua / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 307-364. or.; GÓMEZ SÁNCHEZ, Y. eta MELLADO PRADO, P. “En torno a la posible inconstitucionalidad del apartado 1º del artículo 57 de la Constitución española de 1978”. *Revista de Derecho Político*. 1986, 22. zk., 175-194. or.; GÓMEZ SÁNCHEZ, Y. “La sucesión a la Corona: la reforma del art. 57.1 de la Constitución Española”, in RUBIO LLORENTE, F eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Estatu Kontseilua / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 6365-401. or.; GÓMEZ SÁNCHEZ, Y., *La Monarquía parlamentaria: familia real y sucesión en la Corona*, Madril: Hidalguía / Universidad Nacional de Educación a Distancia, 2008; GONZÁLEZ ALONSO, B. “La historia de la sucesión al trono y el artículo 57 de la Constitución de 1978”. *Revista de Estudios Políticos*. 1981, 19. zk., 7-42. or.; GUTIÉRREZ NOGUEROLES, A. “Reflexiones en torno al régimen constitucional de sucesión a la Corona Española”. *Revista de Derecho Político*. 2003, 57. zk., 199-258. or.; REY MARTÍNEZ, F. “Derecho de sucesión en la Corona y discriminación por razón de sexo: Análisis de la posible supresión de la preferencia sucesoria de los varones”. In RUBIO LLORENTE, F eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Estatu Kontseilua / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 403-441. or.; TOMÁS VILLARROYA, J. eta PÉREZ DE ARMIÁN Y DE LA SERNA, A. “Sucesión a la Corona: art. 57”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996, V. lib., 77-173. or.; TORRES DEL MORAL, A. *El Príncipe de Asturias (su estatuto jurídico)*. Madril: Diputatuen Kongresua, 2005; TORRES DEL MORAL, A. “Reforma constitucional de la sucesión en la Corona”. In RUBIO LLORENTE, F eta ÁLVAREZ JUNCO, J. *El informe del Consejo de Estado sobre la reforma constitucional. Texto del informe y debates académicos*. Madril: Estatu Kontseilua / Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2006, 443-453. or.

dira Espainiako trantsizioan egin behar izan ziren oreka zailak Franco jeneralaren diktadura-erregimenetik gaur egungo erregimen demokratikora inolako apurketarik gabe igarotzeko.

Erregimen frankistak, “Oinarrizko Lege” izeneko batean, Estatu Buruzagitzaren Oinordetzari buruzko 1947ko uztailaren 26ko Legean, Franco jenerala hiltzen zenerako oinordetza-prozedura ezarri zuen. Jeneralak eskubidea zuen estatu buruzagintzan Errege tituluarekin bere oinordeko izan behar zuen pertsona proposatzeko. Modu horretan, Franco jeneralak 1969an erabaki zuen Errege tituluarekin ondorengo izendatzea ez garai hartan eskubide dinastikoaren titularra zena, Joan Borboi-Battembergekoa, Bartzelonako kondea, Alfontso XIII.a Espainiako azken Erregearen semea eta oinordekoa, baizik eta Bartzelonako kondearen semea eta Alfonso XIII.aren iloba, Joan Karlos Borboikoa, erregimenak Espainiako Printzea deitzen zuena, gaur egun Joan Karlos I.a Borboikoa Espainiako erregea dena. 1975eko azaroaren 20an Franco jenerala hil zen eta bi egun geroago, azaroaren 22an, azken Gorte frankistek Joan Karlos Borboikoa printzea Espainiako errege izendatu zuten Joan Karlos I.a izenarekin, arestian aipatu dudan Oinordetza Legean ezarritakoaren arabera.

Bestalde, Joan Borboikoa aitak, Bartzelonako kondeak, 1977ko maiatzaren 14an oinordetza-eskubideei uko egin zien bere semearen mesedetan. Gisa horretan, harrezkero Estatuko Buruzagitzari zegozkion eginkizunak egikaritzen zituena dinastia historikoaren jaraunsle bihurtu zen, bere aitak uko egin ondoren. Ezaguna denez, Erregeak, Adolfo Suárezekin batera, trantsizio korapilatsu hura gidatu zuen, eta 1977ko urtarrilaren 4ko Eraldaketa Politikorako Legea dela bide, 1977ko ekainaren 15ean hauteskundeetarako deia egin zen. Modu horretan, Espainiako Gerra Zibilaren ostean lehenengo Gorte demokratikoak eratu ziren. Azken horiek 1978ko Konstituzioa idaztearen ardura hartu zuten. Konstituzioa herriak 1978ko abenduaren 6an onetsi zuen erreferendumean, eta horren bidez parlamentu-monarkia ezarri zen.

Egia esan, erregimen demokratiko batean, legezotasuna herriak onestitako Konstituzioak ematen du. Baina Monarkia orok duen osagai historikoak azaltzen du Konstituzioan bertan ezartzea Erregea dinastia historikoaren jaraunse legitimoa dela. EKren 57.1 artikuluan egungo Monarkari egiten zaion esanbidezko aipamenaren bidez ulertu behar da Monarkaren kokapena Konstituziotik ondorioztatzen dela eta Konstituzioak berak ematen diola legitimazio demokratikoa Monarkari, ikusi dugun moduan, konstituzio-araua baino lehenagokoa dena. Konstituzioan legitimazio dinastikoari buruz egiten den aipamena dela eta, aipatu autoreak ulertzen du, “legitimazio” horri dagokionez, gaur egungo Monarkia berrezarri bihurtu dela. Ildo horretatik, beste autore batzuen ustez, Konstituziotik eratorritako Monarkiaren legitimazio demokratikoarekin batera legitimazio historikoa aipatu behar dela.

Oinordetza-arauei dagokienez, EKren 57.1 artikuluan Koroaren oinordekoak Joan Karlos I.a Borboikoaren ondorengoak direla eta premutasun eta ordezkaritzaaren inguruko hurrenkera erregularra beteko dela ezarri da; aurreko lerroak lehentasuna izango du beti gerokoei begira; lerro berean, hurbileko graduak lehentasuna izango du urrunekoari begira; gradu berean, gizonezkoak emakumezkoari begira; eta, sexu berean, zaharrenak gazteenari begira. Hau da, lehenengo eta behin, zuzeneko lerroa nahiago da (zuzeneko lerroa hainbat belaunaldik osatzen dute, betiere, batzuk besteen ondorengoak baldin badira: gurasoak, seme-alabak, ilobak, bilobak, etab.) alboko lerroa baino (belaunaldi desberdinetako pertsonen osatua, baina batzuk ez dira besteen ondorengoak, nahiz eta denak enbor beretik etorri, hots, anai-arrebak, lobak, lehengusu-lehengusinak, etab.). Zuzeneko lerroaren barruan, semeak dira lehenengo jaraunseak, gero ilobak, etab., alegia, hurbileko graduak lehentasuna du urrunekoari begira.

Dena den, zuzeneko lerroan ondorengorik ez balego, alboko lerroa zabalduko litzateke, Konstituzioan ez baita ezarri Koroaren jaraunseak

Joan Karlos I.aren ondorengoak soilik direla, haren “oinordekoak” baino, eta albokoak ere oinordekoak dira. Ikusi dugunez, alboko lerroa anaiek, lobek, lehengusuek, etab. eta bakoitzaren ondorengoek osatzen dute. Zuzeneko lerroan gertatzen den bezala, alboko lerroan hurbileko graduak lehentasuna du urrunekoari begira (hau da, lehenengo anaiak, gero lobak, etab.). Gradu beraren barruan, zuzeneko zein alboko lerroan (seme-alaben artean, iloben artean, anai-arreben artean, loben artean, lehengusu-lehengusinen artean, etab.), gizonak lehentasuna du emakumeari begira tronu-oinordetzan. Eta gradu eta sexu bereko ondorengoan artean, pertsona zaharrenak lehentasuna du gazteenari begira, premutasun-printzipioari jarraituz. Amaitzeko, ez da ordezkari-tza-printzipioa ahaztu behar. Horren arabera, Monarkaren seme batek, lehentasunezko oinordetza-eskubidea izanda, ondorengoak baditu eta Erregea baino lehen hiltzen bada, ondorengoek (adibidez, Monarkaren ilobak) lehentasuna izango dute osaben aurretik.

Argi dago Koroaren oinordetzan gizonezkoek emakumezkoen begira lehentasuna dutela, eta hori EKren 14. artikuluan bereizkeriarik ez egiteko ezarri den debekuaren aurrez aurre dago. Orain arte arrazoi historikoengatik mantendu da, baina oro har pentsatzen da al bait arinen aldatu behar dela, beste Monarkietan gertatu den bezala²⁵.

Aldaketa horren eraginez, EKren 57.1 artikulua eraldatu beharko da, eta horrek Konstituzioaren II. Titulua ukitzen duenez, EKren 168. artikuluko prozedura areagotuaren bidez izapidetu beharko da. Jakinaenez, balizko konstituzio-eraldaketari begira, Gobernuak horren gaineko txostena eskatu zion Estatu Kontseiluari. Kontsultatutako gaien artean Koroaren oinordetzan emakumeen gaineko bereizkeria kentzeko erabili beharko litzatekeen formula zegoen. Estatu Kontseiluaren osoko

²⁵ Suediako, Danimarkako eta Luxenburgoko Oinordetza Legeetan, Erresuma Batuan “Succession to the Crown Act 2013” izeneko legearen bitartez eta Herbehereetako, Norvegiako eta Belgikako Konstituzioetan.

bilkuraren 2006ko otsailaren 6ko txostenean (II-3 eta II-4), proposatzen da EKren 57.1 artikulua eraldaketan Filipe Borboikoa eta Greziakoa egungo Printze oinordekoaren eskubideak zaintzeko klausula bat sartzea. Klausula horretan esanbidez azalduko da tronua oinordetza gaur egungo Erregearen semeari dagokiola, hots, Filipe Borboikoa Printze oinordekoari. Eta jarraian, gaur egungo testu bera jasoko da, “gradu berean, gizonetakoak emakumezkoak begira” esaldia ezabatuz. Eta, bide batez, Konstituzioak Erregeari edo Printze oinordekoari egiten dien esanbidezko aipamena zuzentzeko, txostenak 57. artikuluari seigarren paragrafo bat gehitzea proposatzen du. Bertan adieraziko da Konstituzioak Erregeari edo Printzeari egiten dizkien aipamenak Erregeari zein Erreginari, Printzeari zein Printzesari dagozkiola, kasuaren arabera.

EKren 57. artikuluko testura itzuliz, hirugarren paragrafoak dioenez, Zuzenbidearen arabera deitutako lerro guztiak azkenduta, Gorte Nagusiek Koroaren oinordetza antolatuko dute, Espainiaren interesei gehien komeni zaien eran. Bestalde, Espainiako konstituzio-tradizioari jarraituz, errege-abdikazioaren inguruko parlamentu-baimenari dagokionez, EKren 57.5 artikuluan ezarri da Koroaren oinordetza-hurrenkerari dagokionez, uko egiteak (oinordeko izateko eskubidea edo horretarako aukera ezatea karguan aritu baino lehen), abdikazioak (Koroa lortu eta gero egindako ezesprenak) edo egitezko nahiz zuzenbideko zalantzetatik edozein badago, hori lege organikoaren bidez erabakiko dela. Eta horrela egin zen Joan Karlos I.aren abdikazioan, ekainaren 18ko 3/2014 Lege Organikoaren bitartez²⁶.

Beraz, eta aipatu berri ditugun arauak direla bide, Koroaren oinordetza modu automatikoan gertatzen da. Baina EKren 61. artikuluan ezarritakoaren arabera, Erregea Gorte Nagusietan aldarrikatuko dute, eta horren ostean errege horrek zin egingo du bere eginkizunetan zintzo

²⁶ TORRES DEL MORAL, A., “En torno a la abdicación de la Corona”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 102 (2014), 13-48. or.

arrituko dela, Konstituzioa eta legeak bete eta betearaziko dituela, eta herriarren eta autonomia-erkidegoen eskubideak errespetatuko dituela. Juridikoki, Erregea errege da zin egin baino lehen, baina zenbait autorek uste dute zin-egite hori Magistraturaren eraginkortasunerako integrazio-egintza dela, aldarrikapenerako baldintza bat, eta ondorenez, gauzatu beharreko egintza.

Bestalde, EKren 57.2 artikulua beren-beregi aipatzen du Printze oinordekoa. Printze oinordekoak, jaiotzatik bertatik edo deia eragin duen egitate horretatik (pentsa dezagun, esaterako, infante edo infanta bat anai-arreba hiltzen denez Printze edo Printzesa oinordeko bihurtzen dela), Asturiasko Printzearen tratamendua izango du (Koroaren ondorengoaren kasuan tradiziozkoa da XV. mendetik), bai eta Espainiako Koroaren ondorengoak tradizioz dituen gainerako tituluak ere²⁷.

Koroaren oinordekoak soilik izan dezake Printze titulua. Erregearen gainerako seme-alabek eta Printze oinordekoarenek ez dute Printze titulua, Infante titulua baino, Errege familiaren eta erregeordeen titulu, tratamendu eta ohoreen araubideari buruzko abenduaren 6ko 1368/ 1987 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera. Printze oinordekoak, adin-nagusitasuna lortu eta gero, Erregeak egindako zin bera egin behar du, baita Erregearenganako leialtasun-zina ere. Horretaz aparte, Konstituzioan ez da inolako aipamenik egiten Asturiasko Printzearen estatutu, eginkizun, araubide juridiko, eta abarren gainean. Baina erregeak bere agintea erabiltzeko gaikuntza galdu eta Gorte Nagusiek ezintasun hori aitortzen badute, Koroaren Printze oinordekoak erregeordetzan jarduteari berehala ekingo diola esaten da. Mota horretako aipamenik ez egotea gure antolamenduaren hutsunea da, eta orain arte arauketa batek ere ez du osatu.

Errege familiako kideei dagokienez, ez ditugu nahasi behar oinorde-tza-eskubidea duten Errege familiako kideak eta Errege familiakoak.

²⁷ Urtarrilaren 21eko 54/1977 Errege Dekretuak arautuak.

Errege familiaren Erregistro Zibila arautzen duen azaroaren 27ko 2917/1981 Errege Dekretuaren arabera, Erregistro horretan inskribatu behar dira soil-soilik jaiotzak, ezkontzak, heriotzak eta Erregeari, erregearen ezkontideari, lehen graduko aurrekoei (gurasoak), ondorengoei eta Koroaren oinordekoa den Printzeari buruz inskribatzeko modukoa den beste edozein egitate.

Amaitzeko, Konstituzioaren 57.4 artikuluan Koroaren oinordetzatik kanpo geratzeko arrazoi bakarra ezarri da: “*Tronuan oinordeko izateko eskubidea izanik, norbaitzuk ezkontzen badira Erregearen eta Gorte Nagusien esanbidezko debekuaren aurka, eurak eta beren ondorengoak Koroaren oinordetzatik at geratuko dira*”. Hau da, ezkontzeko ez da alde aurreko baimena eskatzen. Erregearen eta Gorte Nagusien esanbidezko debekuaren aurka ezkontzearen ondorioz bakarrik gera daiteke Koroaren oinordetzatik kanpo. Eta kontuan hartu behar da manua ez zaiola Erregearen ezkontzari aplikatzen, tronurako oinordetza-eskubidea duten pertsonen ezkontzeei baino ez.

V. ERREGEORDETZA

EKren 59. artikulua erregeordetzari buruzko guztia arautzen du²⁸. Erregeordetza konstituzio-organoa da, eta Erregeak estatuburua den aldetik dituen eginkizunak betetzen ditu. Erregeordetza Konstituzioaren aginduz beteko da, beti Erregearen izenean (59.5 art.). Erregeordeari

²⁸ FERNÁNDEZ FONTECHA, M. “Regencia: artículo 59”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996-1999, V. lib., 181-187. or.; PASCUAL MEDRANO, A. *La Regencia en el Derecho Constitucional español*. Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 1998; PASCUAL MEDRANO, A. “La Regencia”. In TORRES DEL MORAL, A. eta CANDO SOMOANO, M.J., *Monarquía y Constitución*. Madril: Colex, 2001, 245-262. or.; SANTAMARÍA PASTOR, J.A. “Inhabilitación, regencia y tutela del Rey”. In ZZ.AA. *La Monarquía Parlamentaria (Título II de la Constitución)*. VII Jornadas de Derecho Parlamentario. Madril: Diputatuen Kongresua, 2001, 405-418. or.

EKren 61. artikulua Printze oinordekoarentzat ezarritako zin bera eskatzen zaio, hots, bere eginkizunetan zintzo aritzea, Konstituzioa eta legeak bete eta betearaztea, autonomia-erkidegoen eskubideak errespetatzea eta Erregeari leial izatea. Konstituzioan erregeordetza gauzatzeko bi kasu ezarri dira: Koroaren titularra adingabea izatea edo eginkizunak gauzatzeko ezinduta egotea. Konstituzioak arreta berezia eskaintzen dio erregeordetzari, arrazoi historikoak direla-eta.

Izan ere, Espainiako historia politikoan bi erregeordetza garrantzitsu egon ziren, Elisabet II.a erregina eta Alfontso XIII.a erregea adingabeak ziren bitartean. Hain zuzen ere, Errege adingabea den bitartean, horren aita edo amak protagonismo nabarmena lor dezakete, Konstituzioaren arabera konstituzio-eginkizunak euren gain har ditzakete eta. Izan ere, 58. artikulua arabera, erregina ezkontideak edo erreginaren ezkontideak (berriro ere, konstituzio-terminologia diskriminatzailea da sexuari dagokionez, kasu honetan gizonezkoaren kalterako) ezin dute konstituzio-eginkizunik bereganatu, erregeordetzaren inguruan xedatutakoa salbu.

Aipatu dudan bezala, erregeordetzak Monarkaren eginkizunak egikaritzen ditu bi kasutan: a) Monarka adingabea denean eta adin-nagusitasuna lortu arte, hots, hemezortzi urte; kasu horretan, Konstituzioan ezarri da Erregeordea Erregearen aita edo ama izango dela, eta horiek izan ezean, eta Konstituzioak ezarritako hurrenkeraren arabera, Koroan oinordeko izateko hurbilen dauden ahaideetatik zaharrena (59.1 art.). Erregeordetza Erregeak hemezortzi urte betetzen dituenean bukatuko da; b) Erregeak bere eginkizunak gauzatu ezin baditu eta Gorte Nagusiek ezintasun hori aitortzen badute (Konstituzioak hitzez hitz adierazten du “*Erregeak bere aģintea erabiltzeko gaikuntza galtzen badu eta Gorte Nagusiek ezintasun hori aitortzen badute...*”), Koroaren Printze oinordekoak ekingo dio erregeordetzan jarduteari, adin nagusikoa baldin bada. Eta ez baldin bada, aurreko paragrafoan ezarri moduan jardungo da, Printze oinordekoak hamazortzi urte bete arte (59.2 art.).

Kasu horretan, Gorteen ez dute erregeordetza izendatzen (erregeordetza egikaritzera deituta dauden pertsonak aurretik ezarritako ordena dela bide izendatzen dira); Erregea bere eginkizunak betetzeko ezinduta dagoela bakarrik hartzen dute kontuan. Lehenengo eta behin, “desgaikuntza” Erregeari bere eginkizunak fisikoki egikaritzea eragozten dion edozein egoera dela ulertu behar da. Modu horretan, Erregeordetza bukatzen da Monarkaren desgaikuntza eragiten duen arrazoia desagertzen denean. Orduan, aurretiaz ikusi dugunarekin koherentzia gordetzeagatik, arrazoi hori Gorteen ere kontuan hartu beharko lukete. Amaitzeko, Konstituzioan ezarritakoaren arabera, aurreko irizpideetan oinarrituz Erregeordetza bereganatzeko moduan inor egongo ez balitz, Gorte Nagusiek izendatuko dute, eta kasu horretan, bat, hiru edo bost pertsonak osatu ahal izango dute Erregeordetza.

Erregeordea izateko, bi betekizun soilik eskatzen dira: espainiarra eta adin nagusikoa izatea (59.4 art.). Gainera, Konstituzioan ezarri da bateraezina dela Erregeordea eta Errege adingabearen tutorea aldi berean izatea, aita, ama edo Erregearen zuzeneko aurrekoetatik bat ez baldin bada.

VI. ERREGEAREN TUTORETZA

EKren 60. artikuluan Errege adingabearen “tutorearen” erakundea arautu da, eta Konstituzioak berak Erregeordetzaren erakundetik bereizi nahi izan du²⁹. Izan ere, tutoretza ez da funtzio publikoa, erregeordetza bezala, pribatua baino. Tutoretzari lotuta hiru kasu ezarri dira: a) testamentu bidezko tutoretza: Errege adingabearen tutorea izango da Errege

²⁹ FERNÁNDEZ FONTECHA, M. “Tutela: artículo 60”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996-1999, V. lib., 189-194. or.; GARCÍA MERCADAL Y GARCÍA LOYGORRI, F. “La tutela regia”. *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*. 1985, 2. zk., 253-271. or.; OTTO OLIVÁN, S. *La tutela del Rey Menor en la Constitución española de 1978*. Madril: UNED, 2000.

zenduak bere testamentuan izendatutako pertsona, baina kasu honetan, bi betekizun eskatzen zaizkio: adin nagusikoa eta jaiotzez espainiarra izatea (azken hau deigarria da, Erregeordeari ere ez baitzaio jaiotzez espainiarra izatea eskatzen, eginkizun askoz garrantzitsuagoak gauzatu arren). Asko eztabaidatu da tutorearen izendapena berretsi behar den edo ez. Autore batzuek ezetz defendatzen dute, Erregearen bere-berezko egintza eta pribatua delako. Aitzitik, beste zenbaitzuek uste dute Errege adingabearen tutorea izendatzeko egintza oso garrantzitsua denez, horrek esparru pribatu hertsia gainditzeko duela eta berretsi egin beharko litzatekeela; b) “tutoretza legitimo” deitutakoa, hots, Konstituzioak berak Errege adingabearen aitari edo amari esleitzen dio tutoretza alargun den bitartean, Errege zenduak bere testamentuan tutorerik izendatzen ez badu; eta c) “parlamentu-tutoretza edo tutoretza datiboa”, hau da, aurreko tutoretza bietako bat ere posible ez denean gertatzen dena. Kasu horretan, Gorte Nagusiek izendatzen dute Errege adingabearen tutorea.

Konstituzioan bi baldintza osagarri daude tutorearentzat: lehenengoa orain ikusi dugu (pertsona bat aldi berean ezin da Erregeordea eta tutorea izan, aita, ama edo Errege adingabearen zuzeneko aurrekoa ez bada), eta bigarrenaren arabera tutoretzan aritzea bateraezina da kargu edo ordezkari politiko guztiekin. Azkenik, aipatu behar da tutoretza Erregeak adin nagusitasuna lortzean amaitzen dela, betiere, tutoreak Monarka adin nagusikoa izan baino lehen karguari uko egiten ez badiu, hiltzen ez bada edo gaikuntza galtzen ez badu. Kasu horretan, tutorea izendatzeko aztertu berri ditugun kasuetara jo beharko genuke.

VII. ADMINISTRAZIO-ERAKUNDEAK KOROAREN ZERBITZURA

Atal honetan, hiru gai jorratuko ditut: Koroak jasotako diru-kopurua, Errege Etxea eta Nazio Ondarea.

1. Koroak jasotako diru kopurua

EKren 65.1 artikulura bilduta dago, eta Erregeak estatuaren aurrekontuetatik bere familia eta etxeari eusteko urtero jasotzen duen urteko oso osoko diru-kopurua da. Erregeak kopuru hori askatasunez banatzen du, hau da, ez du berrespenik behar. Erakunde hori ohikoa da Monarkia guztietan eta “Zerrenda Zibila” esaten zaio, britainiar ereduaren “Civil List” izenekoari jarraituz. Azken hori 1688ko Iraultza Loriatsuaren garai-koa da, britainiar Parlamentuak Koroaren absolutismoa gailentzea lortu zueneko. Modu horretan, Monarkia mugatua ezarri zen, estatuaren ondarea eta erregearen ondarea argi bereizten zituen. Doktrinak azpimarratu duenez, Parlamentua da eta ez Erregea urteroko kopurua zehazten duena. Diru-kopuru hori Estatuaren Aurrekontu Orokorrari gehitzen zaio eta, modu horretan, urtero gaurkotzen den arren, Gorteen ere kontrolatzen dute, azken horiek aurrekontuak onestearen ardura baitute (BASSOLS COMA)³⁰. Erregearen ahala Gorteen aurretiaz finkatutako zenbatekoa askatasunez banatzean datza. Egia esan, diru-kopuru hori ez da modu pertsonalean edo familiari lotuta esleitzen, Erregearen etxeari eustea ere barruan hartzen da. LÓPEZ GUERRAREkin bat etorritz³¹, Koroaren aurrekontua dela esan daiteke, konstituzio-organo moduan hartuta.

2. Errege Etxea

Errege Etxea³², Espainiako Monarkiaren historia luzeari lotuta dago. Erregearen etxea berregituratzen duen maiatzaren 6ko 434/1988 Errege

³⁰ BASSOLS COMA, M. “Instituciones administrativas al servicio de la Corona: dotación, Casa de S.M. el Rey y Patrimonio Nacional”. In LUCAS VERDÚ, P. (zuz.). *La Corona y la Monarquía Parlamentaria en la Constitución de 1978*. Madril: Universidad Complutense, 1983, 151-196. or.

³¹ LÓPEZ GUERRA, L. “Dotación de la Corona: art. 65”. In ALZAGA VILLAAMIL, O. (zuz.). *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Gorte Nagusiak / EDESA, 1996, V. lib., 309-322. or.

³² CREMADES, J. *La Casa de S.M. el Rey*. Madril: Civitas, 1998; DÍAZ GONZÁLEZ, F.J. “El régimen jurídico de la Casa de S.M. el Rey D. Juan Carlos I”. *Anuario de la Facultad de*

Dekretuaren 1. artikuluan esaten da Errege Etxeak, zuzenean Erregearen menpe dagoen erakunde moduan, Erregeari lagundu behar diola estaturua den aldetik dituen eginkizun guztietan, eta zehatz esanda, hurrengo hauei lotuta: Erregeak erakunde ofizialekin, entitateekin eta partikularrekin dituen harremanak, bere eta bere familiaren segurtasuna, arauzko oho-reak, eskolta-zerbitzuak, eta Errege Familiaren egoitzako barne araubidearen antolaketa eta funtzionamenduaren inguruko gaiak (1. art.). Ikusi dugunez, EKren 65. artikuluan ezarritakoa dela bide, Erregeak askatasunez banatzen du Estatuaren aurrekontuetatik jasotzen duen diru-kopurua bere familia eta etxeari eusteko, eta askatasunez izendatu eta kentzen ditu bere etxeko kide zibil eta militarrek. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak³³ argi utzi zuen, nahiz eta errege-etxea inongo Herri Administrazioan sartzen ez den, kudeaketa-askatasuna ematen diona, errege-etxearen zerbitzura dauden langileen estatutuaren arautze juridikoa egon behar dela. Azken hori eta baita araubide juridiko horren aplikazio-egintzak ere justiziaren kontrolpean egon behar dira, eta oinarrizko eskubideak hausten badira, Konstituzio Auzitegiaren kontrolpean ere bai.

Erregearen etxearen antolaketari dagokionez, buruzagitzak, idazkari-tza orokorrak, kide militarrek eta errege-guardiak osatzen dute. Etxeko buruak Etxeko zerbitzu guztiak zuzentzen ditu; Ministerioekin eta beste erakunde ofizial batzuekin komunikatzen da; Erregearen etxeko aurrekontu-proposamena formulatzen du; etxeko zerbitzuen berezko gastuak xedatzen ditu; kontratuak sinatzen ditu; errege-guardiaren eta segurta-

Derecho de Alcalá de Henares. 1998-1999, 8. zk., 213-234. or.; Díez-PICAZO PONCE DE LEÓN, L.M. "El régimen jurídico de la Casa del Rey (Un comentario al artículo 65 de la Constitución)". *Revista Española de Derecho Constitucional*. 1982, 6. zk., 115-140. or.; VACAS GARCÍA-ALOS, L. "Aproximación a un nuevo régimen jurídico de la Casa del Rey". *Revista de Derecho Político*. 2000, 48-49. zk., 383-410. or.; VACAS GARCÍA-ALOS, L. *La administración de la Casa del Rey y su control jurisdiccional en el derecho constitucional español*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2002.

³³ Azaroaren 28ko 112/1984 Konstituzio Auzitegiaren epaian.

sun-zerbitzuaren arteko koordinazio-arauak ezartzen ditu eta etxeko zerbitzu guztien nagusia da.

Bestalde, idazkari orokorrak, Errege Etxeko bigarren buruzagiak, etxeko buruzagia ordeztzen du azken hori ez dagoenean edo beharrian-egoeretan, eta etxeko zerbitzuak koordinatzen ditu, zehatz esanda, langileen burua da, eta hurrengo hauen gaineko ardura du: zerbitzu orokorrak, etxeko barne-araubidea, jarduerak eta programak, komunikabideekiko harremanak, protokoloa, etxeko erregistro eta artxibo orokorra eta erreginaren idazkaritza. Kide militarrek Indar Armatuaren ohorezko ordezkariak dira etxean, eta errege-guardia guardia militarraz arduratzen da eta erregeari, bere familiako kideei eta Espainiara bisitan datozen estatuburu atzerritarrei ohore egin eta eskolta eskaintzen die. Segurtasun-zerbitzuak Erregearen familiaren segurtasunaren ardura du, eta buruzagitzak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek osatzen dute.

3. Nazio Ondarea

Amaitzeko, nazio-ondareari³⁴ aipamen laburra egin behar zaio, hain zuzen ere, 1812ko Konstituzioak Errege Ondarea deitzen zuenaren oi-

³⁴ ARCENEGUI, I. de. "El Patrimonio Nacional. Naturaleza y régimen jurídico". In MARTÍN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord.). *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al Profesor García de Enterría*. Madril: Civitas, 1991, V. lib., 3905-3915. or.; CANO CAMPOS, I., "El Patrimonio Nacional". In CANO CAMPOS, I., (koord.), *Lecciones y materiales para el estudio del Derecho Administrativo*, Madril: Iustel, 2009, 5. lib., 71-97. or.; Díez MORENO, F. "La evolución constitucional del Patrimonio Nacional". *Reales Sitios. Revista del Patrimonio Nacional*. 1989, 1. zk., 15-30. or.; GARCÍA-ATANCE GARCÍA DE MORA, M^aV. "El Patrimonio Nacional". *Revista de Derecho Político*. 1991, 33. zk., 151-172. or.; GARCÍA FERNÁNDEZ, J. "La Ley de Patrimonio Nacional". *Reales Sitios. Revista del Patrimonio Nacional*. 1993, 115. zk., 51-60. or.; POMED SÁNCHEZ, L., "Bienes de los órganos constitucionales. II El Patrimonio Nacional". In GONZÁLEZ GARCÍA, J.V.(zuz.), *Derecho de los bienes públicos*, Valentzia: Tirant lo Blanch, 3. arg., 2015, 295-320; VEGA HERRERO, M. eta MUÑOZ DEL CASTILLO, J.L. "Patrimonio del Estado y Patrimonio Nacional: aspectos jurídico-financieros". In MARTÍNEZ LAFUENTE, A. (koord.). *Estudios de Derecho y Hacienda: Homenaje a César Albiñana García-Quintana*. Madril: Economía Ministerioa, 1987, I. lib., 605-642. or.

nordekoa. Koroak gozatzeko esleitutako Errege Jauregiez osatuta dago. Gaur egungo Konstituzioan erakunde hori 132.3 artikuluan jaso da, Nazio Ondarea izenarekin, eta hori geroko lege batek arautuko duela zehaztu da. Lege hori ekainaren 16ko 23/1982 Legea da. Nazio Ondarea Estatuaren titulartasuneko ondasunek osatzen dute. Ondasun horiek Erregearen eta Errege Familiaren erabilerarako eta zerbitzurako dira, batetik, Konstituzioak eta legeek esleitzen dieten ordezkariak gorenari eginkaritzeko (funtsean, jauregiak eta errege-egoitzak), eta bestetik, errege-fundazioen eta Errege Patronatuaren gaineko Patronatuaren eskubide eta zamengatik (funtsean, elizak, monasterioak, etab., errege-fundazio eta -patronatukoak). Ondasun eta eskubide horiek guztiak Administrazio Kontseiluak zuzentzen ditu. Azken hori zuzenbide publikoko erakundea da, Gobernuko Lehendakariaren menpe dago, eta Errege Etxetik guztiz bereizita. Kontseiluaren helburuak Nazio Ondarearen ondasun eta eskubideak kudeatzea eta administratzea dira. Kontseilua lehendakariak, kudeatzaileak eta gehienez hamahiru batzordekidek osatzen dute, guztiak Gobernuak izendatuta. Kontseiluaren eginkizuna izango da ondasun eta eskubide horiek iraunaraztea, administratzea eta babestea, kultura-, zientzia- eta irakaskuntza-erabilera dutela zaintzea, eta ingurumena babestea kudeatzen dituen eta, batez ere, balio ekologiko handia duten lurzoruetan (adibidez, Pardo mendia).